

DEFINIZIOA

Zure senitarteekiko, lagunekiko eta lankideekiko jokabideak. Sentimenduak, nahiak, iritziak eta eskubideak modu egokian eta hurkoa AINTZAKOTZAT HARTUZ adierazten dituzu.

EGOERA PRAKTIKOAK

Enplegua
bilatzea
norberaren kabuz
besteren kontura



Ikastegiko zuzendariak UNAI deitu du, elkartrukearen garapenaren jarraipena egiteko. Aukera baliatu, eta curriculuma lan-poltsara sartu nahi duela adieraziko dio. Unaik txandala eta kirol-zapatilak jantzi ohi ditu, horregatik Hans lagunak ez du ezagutu, alozak dituen galtzak, zapatak, atorra eta jertsea jantzita ikusi duenean. Elkarrizketatu behar duten lekura iritsi eta zuzendaria agurtu du, eskua emanez. Esertzeko esan arte itxaron du. Elkarrizketak iraun duen bitartean, buruaz baietsi du, begietara begiratu du, galderak egin ditu eta erantzuteko tonu atsegina eta arina erabili ditu.

Enplegua



Buruarekin eta lankideekin izan duen lan-batzar batean, ANEK hobetzeko proposamena aurkeztu du, behar bezalako argudioak emanez eta hizkuntza hitzezkoa bezala hitzezkoa ez dena ere behar bezala erabiliz. Proposamena azaldu ostean, gainontzekoen iritzia jakin nahi izan du. Adi-adi egon da entzuten, parte hartzeko eskatu die, mahairatu diren burutapenetako zenbait indartu ditu, berrartu eta laburbildu egin ditu, eta buruarekin, hasiera batean hark gustuko ez zuen neurrietakoren bat ezartzea negoziatu du.

Beste
alor batzuk



MAITE erosketak egiten ari da fruta-dendan. Txanda heldu zaionean, Julen agertu da, 25 urteko auzoko mutil bat. Beti presaka dabil, eta inori galdetu gabe, 2 kilo laranja eskatu ditu. Maiteri ez zaio batere gustatzen inork txanda kentzea. Gaztea garaian bezalakoa balitz, garrasi egingo ziokeen bai eta iraindu ere. Egun, ordea, zuhurtasunez jokatzera erabaki du. Juleni gaizki jokatu duela esan dio, bai eta arrazoiak azaldu ere. Ez du ahotsaren tonua goratu, baina tinko eutsi dio hizketan aritu den bitartean. Ez dio mehatxurik egin.

GOGOAN
IZAN

▶ Eman zeure buruari bai eta hurkoari ere **ESKUBIDEAK** eta **BETEBEHARRAK**.

▶ **ENTZUN**, parte harrarazi eta indartu besteren iritzia batzarretan.


▶ Zaindu hala hitzezko **HIZKUNTZA** nola hitzezkoa ez dena. Hitzezkoa ez denak hitzezkoak beste indar du komunikazioan.



BARAKALDOKO UDAL GORENA Euzko Legebaitza
Organismo Autonomo ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO



Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Fondoa



BARAKALDOKO UDAL GORENA Euzko Legebaitza
Organismo Autonomo ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO